

Nafarroako Esaera Zaharrak. Alkotz, Arraitz-Orkin, Auza.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Alkotz, Arraitz-Orkin, Auza.

- 1870 *Aize t'auri, axarien eztaiek.*
Azeriak olako eguraldietan erraz arrapatzen zer jana.
- 1871 *Arbol igarrian aixe egiten da egurre.*
Zarrari eta jende xeari erraz egiten zaio farra.
- 1872 *Ardi beltxak ez dizu axuri txurie egiten.*
Guraso txarrengandik ume gaiztoak ateratzen geienean.
- 1873 *Aritz aundiek itzal aundie.*
Jende aundiak eta aberatsak laguntza aundia eman dezakete.
- 1869 *Aitzeki-maitzeki, lurre baño ustelagoa aiz i.*
Alferrari ta ordaintzale gezurtiari esana.
- 1874 *Arraldaka badoazi yendeak bestara.*
Pillaka, multzuka.
- 1875 *Arratsian sagar bat yaten du(e)nak, medikue etxetik ateratzen du.*
Ori egia balitz!
- 1876 *Arri ta so! Orrek deusik ez dik a(d)itzen.*
Iñoren esanik ez du egin nai.
- 1877 *Atsa 're gezurre du.*
Ain gezurtia da! Beste nonbait: Arnasa aiñe gezur.
- 1878 *Ate aiñe maratil paratuko ttu (ditu) onek.*
Edozertarako aitzakiak aterako.
- 1879 *Atez: zazpi erri ta lau apez.*
Atez ibarra (valle de Atez) Ultzama ondoan.
- 1880 *Autsok ekarko ttute (dituzte) loiek.*
Ibillera auek ondorio txarrak ekarriko.
- 1881 *Bazko guziek il-zar: ireute (iñaute) guziek il-berri: errege Salomon-ek (Absalon-ek): ez du gose, ez egarri.*
Illa zelako berria emateko esana.
- 1882 *Berrogei urteen iraulieran nago.*

- 1883 *Begi-emanik dauzket neretako pagoak.*
Begi eman, begiz jo, berexi, aukeratu.
- 1884 *Buru gabeak, txapel bearrik ez.*
Buru edo jakintza-gabea, zertako lotu egin ez dezaken lanbide bati?
- 1885 *Danbolin berriok, soñu eder.*
Okin, jostun, saltzale berriak ere berdin.
- 1886 *Egalik gabe egatu nai.*
Nola den jakin gabe edozein lanbideri lotu.
- 1887 *Egonean, egoneran, azkeneko erditxi du.*
Luzaro itxoin ondoan, noizpait ere iritxi du nai zuena.
- 1888 *Elurra nolakoa den: Izotzillekoa (ilbeltzekoa), burnie: otsailekoa, altzairue: martxokoa, arrie: apirillekoa, lurre: maiatzekoa, gazure.*
- 1889 *Elur-urte, patxaran-urte.*
- 1890 *Ero, baño bero.*
Nabillen ni bero, naiz iduri ero.
- 1891 *Gaur non intzen ogis (ogiz)? Ogis, iñon ez: artoz, txertzaien etxian.*
Garai batean, erriko auntsai (eta txertzaiak) ogiz edo otorduz etxe-etxe ibiltzen ziren.
- 1892 *Gero dionak, bego dio.*
"Gero ordainduko" dionak, iñoiz ez ordaintzen, askotan.
- 1893 *Giza txarra plazan ezagun da trazan.*
- 1894 *Goiz bazen, berandu bazen: garizume negu zen.*
- 1895 *Goiz yeiki, goiz gosetu: berandu yeiki, berandu gosetu.*
- 1896 *Goiz gorri, gaueko euri.*
- 1897 *Gorrontz ta Olano, biek "hermano": Gorrontz-en artzeko, bere burue galtzeko.*
Ordaintzale txarrak izaki? Gorrontz ta Olano bi erri koxkor dire,
Lizaso ondoan.
- 1898 *Ipurtxoan arrotuko zaitut.*
Joko zaitut... aurtxoari esana.

- 1899 *"Iruñen zer berri?" galdetu omen zuen errege Karlos V'garrenak.
Besteak erantzun: "Iruñen gari asko". Eta erregek berriz: "Gari asko, gari
asko? Bat ere ez neretako".*
- 1900 *Kaldo-maldo, ta zuku-salda.
Deus ere balio ez duena.*
- 1901 *Lenik farra itten (egiten) zizun, baño auts arrauts egiñik utzi ziñuen.*
- 1902 *Lezia baño illunago dago.
Gaua oso illun.*
- 1903 *Maiatza, otzak il emen zuen.
Maiatz otzak abereak iltzen. Oihenart-ek: "Hotzak hil zezan maiatza, eta ni ase
nengan" (253).*
- 1904 *Min duenak atx! egiten du.
Txarkerien bat egin zaionak espak ateratzen.*
- 1905 *Non da besta, non da beille (erromeria): an da nere kireille (zangoa).
"Non da besta, an da neska".*
- 1906 *Nola edo ala, egin zak al dukena.*
- 1907 *Oñezkoari muzin, eta zaldizkorik ezin.
Mutil xearekin ez ezkondu nai, eta aberatsik ezin izan.*
- 1908 *Ogei ta ameka eskutik egin dio.
Alde aurretik dirua jaso, eta gero gauza txarra eman; edo jokuan ez
dakienarena egin, eta gutxi dakienari aidian irabazi.*
- 1910 *Ori bere eleketatik ez da ateratzen.
Berekoia, setatsua da oso.*
- 1911 *Ori duk zopak eta furrut.
Jan eta eraman egiten du.*
- 1912 *Ori ez da gure ardiaren bildotxa.
Ori ez da guretako iñork esana.*
- 1913 *Orrek babak aterako ttik (dizkik) eltzetik.
Orrek bizia aterako dik; gauzak argituko dizkik.*
- 1914 *Patxarana lore, negua luze.*

- 1915** *Poltxako odolak irakiñen dik iri (Auza).*
Axolakabeaz esana.
- 1916** *San Jil: iretzia ebakitzea zil (zillegi, libre).*
Iratzea = irastorra, garoa. San Jil iraillaren (buruilaren) lenengo egunean da. Ez dakit esaera ori Ultzamarako ongi datorren. An beranduxeago asten zen iratze-ebakitzea; illaren 21 (San Mateo) zen ortarako egun jakiña. Egun ortan, goizean goiz, argitu gabe, joaten ziren larrera, zeñek bere iratze-sailla ebakitzen astera, ez lenago. Esaera au ez ote da Baztangoa? Azkuek ala dakar.
- 1917** *San Marko: kazkarabarra agoan dago.*
Apirillaren 25'an maiz izaten kazkarabarra.
- 1918** *Sasie malda(re)n alde.*
Bakoitza bere antzekoen alde.
- 1919** *Sasiek ere badittute begiek.*
Sasi artean norbait egon liteke zelatan.
- 1920** *Sudurretik agora ez daki idukitzen.*
Ez daki deus ere ixillik idukitzen.
- 1921** *Sudurpian bai zuk indarra!*
Mingain zorrotza duzu.
- 1922** *Tiru-liru kantatzen du miruek: urek ekarri, ardoak eraman arrantzialien diruek.*
- 1923** *Urre ona izan balitz, urbillago ere kanbiatuko zen bai.*
Jende prestua izan balitz, etzukean urrutira joan bearrik edo ezkontzaz edo beste edozein eginkizunez. Oihenart-ek: "Urrunera dohena ezkontzera, edo da enganatu, edo doa enganatzera" (675).
- 1924** *Umiak azi, nekeak bizi.*
Umen azierak nekerik asko dakar berekin. Oihenart-ek: "Haurrak hazi, nekeak hasi" (214).
- 1925** *Urte berri ta urte zar: Martzelino galtza zar.*
Beti beartsu edo moldakaitz jantzia.
- 1926** *Zakurren biguliñe iretzat!*
"Oa pikuetara"! bezela.
- 1927** *Zartu t'ezindu: oberenak eman ttu (ditu).*
Zartu ezkerro ezin egin gaztetan bezalakorik.

- 1928** *Zu bezalako nagusiek egon dire tximinipe ontan.*
Nagusi arro bere-ustekoari esana.
- 1929** *Zer da iltzia? -Atsa at(e)ratzia.*
Laburki eta ongi esana.
- 1930** *Ura arraka dario.*
Erauntsia edo ekaitz gogorra ari du.
- 1931** *Onek istiek ederki egiten ttu (ditu).*
Istiak egin = beste baten ibillera ta mintzoa ta keiñuak-ta ederki egin (erderaz remedar).
- 1932** *Taxo eman dio.*
Norbait edo zerbait nola den igarri dio, zailla bazen ere.
- 1933** *Ardiek ederki ari dire alatzten.*
Bazka ausarki badute, ta ederki ari dire jaten (Cfr alha ziren, alha dire = jaten ari ziren, ari dire).
- 1934** *Txelatu(r)ik nago.*
Goitik bera busti busti egiñik.
- 1935** *Begieztatu al duzu baso ori?*
Ongi ikusi al duzu?
- 1936** *Ikurke-makurke egin du goldatza.*
Golde-lana, erreka, ildoak ez du zuzen zuzen egin.
- 1937** *Lazaro paratu.*
Elizan diren gurutzeak eta santuen irudiak oiazez estali. Garizumako boskarren igandean egiten da ori. Igande ori Lazaro-igandea deitzen da (Bizkaian ere nonbait Naseru). Lenagoko denboretan (eta orain liturgia berrituan ere bai) egun ortako mezan Lazaro il ta berriz piztuaren ebanjelioa irakurtzen da. Ortik igande orren izena: Lazaro-igandea, eta esaera ori: Lazaro paratu (jarri, ipiñi) = gurutzeak eta santuen irudiak estali.